

Leandro Narbaiza Azkarate
Bergara, Gipuzkoa (1923-1994)

Aurkibidea

Biografia

Arane auzoko Larrarte baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Zintak

BER-251

- **Proiektua:** Bergarako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Elisabet - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Azkarate, Miren Pantxeske
- **Data:** 1991-07-16
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Murinondo, Aranerreka eta Elosu bitarteko toponimia

- **Erref:** BER-251/001
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Murinondo, Aranerreka eta Elosu auzoen bitarteko toponimia.

Transkripzioa

- Honen izena badakizu?

- [...] de la casa pa'allí [...], del otro barrio?

- Bai.

- Beistegi gaiñian...

- Gaiñarre.

- Gaiñarre... Eta gero Miaka badakizu nun daon, ez? Hamendik be ikusten da. Ta Miakatik aurrerao beste tontor bat dao hor, ez?

- Laudatz buruan daona?

- Bai.

- [Laudatz...] gora. Harek izena ez dakit izena ze esaten jakon. Horixe ezin neike... Handik gorakuai bai, [geuk ipinittakua]... Sakonaundittik gora hori, Loidi, [sua egon zanori], Beisteikoegieta.

- Hori da... bueno, hemen, mapa hontan, ez da ikusten, baiña hor dauana.

- Mapa honen eskumakuak?

- Bai.

- Zela esan dozu izen hori?

- Beisteikoegieta, Beisteikoegieta, Beisteiko hegixa esaten jao guk, Beisteikoegieta horixe da: Beisteiko hegixa.

- Eta zela da... Loidi edo Loidi gaiña edo hamen gertu dao? Eske lehengunian amakin pasiatzen jun giñanian pasau giñun hori Gaiñarre esaten dozuna zuk...

- Gaiñarre da Miakatik beherako tontorra. Bueno. Hortik gora, Miakatik gora gaiñera gora ixotakuan Loidi dao Akelarretik aurreraoko laua. Akelarre hori, badauke honek sozidadia Torretxeak eta, Torretxeko igeltseruak eta. Hor Amestira goietzela zuek badakizue tunelbokia nun daon, tunelbokia, lehenguana, urana, ez dozue jakingo... Neberak be ez dozue jakingo nun daren... Neberetan dao horren... lehen Araneko txabolia erosi zebe horrek. Handik gorako laua da —kooperatibiak oin dabillena— haura da Loidiko laua. Ta han dao zulo bat ta esaten gontsan, ba, oiñaztarrixak sartzen zien, ta Sorginzulua esaten jakona. Haura da, Loidi haura da. Gero handik honutz behera honutzao berriz dao beste tontortxo bat Pagolatik honuzko hori, hori Itxumendi. Itxumendi horri be. Gero beste Itxumendi bat dao emisoria daon aldian. Hari be berdiña esaten jaue.

- Bi daz orduen...

- E?

- Bai.

- Itxumendi. Ta hori tontorra da, ba, biribilla dalako hemendikua be, ta handikua be halaxe. Emisoria daona bestia. Horrek bixok [...] horixe izena. Gero Loiditxiki dao beste bat horrek bixen erdixan. Lastorrittako sailla —oin linea pasatzen da— ta [Itsasmendira kalera bajauta ... Narbaizak]. Horretxek dia hor daren izenak. Ta gero handik behera Gartzain, Gartzain da, ba, itturixa [dao Gartzaiñen], Gartzain dauka harek izena aldapa

zaharra galanta. Ta lehengo Elusuko bidia, printzipala, Irutxaboletan etortzen zan. Zuek Irutxaboleta be ez dozue jakingo nun zaon?

- Bertan egonda ez, baiña...

- A! Ba... Bertan pasauta bai...

- Bai.

- Zabaleta burua da Irutxaboleta, oin ez dao txabolarik baiña.

- Bai, hau...

- Ta handik behera gero, ba, [...] aldera [... Abraiñera].

- Bai, eta gero hamen, irten, ez? Ataixa [...] kanpora, ta hor goixan ikusten dan... ez dakit mendixa dan edo tontorra dan edo...

- Hau berau, gaiñau?

- Bai.

- Hau beronen puntia goiko gaiña ala honena?

- Ba... Azpilletatik gora.

- Baiña haren puntia?

- Bai.

- Aingelburua haura, e?

- Bai, hori. Haura.

- Aingelburu. Haura da, baiña mendi honen tontorra, ya prinzipala.

- Bai, bai, bai.

- Gero guk txabolia daukauna, [...] beherao daona, hori Goiko-laua. Beste izen bat.

- Goiko laua izango da...

- Anguako etxaburua.

- ... hara gora juteko [...]?

- Anguako etxaburua.

- Hemendik jun bihar da.

- Anguako etxian pare-parian dao gaiñekaldeko [...] Goiko laua.

- Hauxe izan leike...

- Ze dao, gutxi gorabehera gaiñetik etxera bittartian?

- Azpilletatik gora junda, oin... goratxuao, oin ganauak hor dabitzen lekutik Miaka aldian dao kanpo-fubolan tamaiñoko lau-unia dao. [Zergatikan], e... soldauen txabolia eukittako... [...], baiña izena dauka, izetex, Goiko laua. Mendi honek ez dauka beste holako lau-unaik. Kanpo-fubola eitteko tamaiñokua dao. Oin [...] hanka eingo leukiela oin zerak, baloiak, baiña bertan erdixan geu be ibili izen gara ta [...] lekua edarra. Goiko laua esaten jako. Ta beste bat, terreno bat, hau guria, harek izena, ba, aparte. Baiña harek ez dauka... haura... Itxikua.

- Itxikua?

- Bai, Itxikua.

2. Aranerreka auzoko toponimia

• **Erref:** BER-251/002

• **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:10:00

Gaia(k):

• Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aranerreka auzoko toponimia; Larrarte eta Azpilleta baserrien inguruko sailen izenak.

Transkripzioa

- Itxittakua. [...] guk esandakua, baiña Itxikua. Itxi, itxitta zeuan holan,

besterik ez zeuan.

- Eta hori nun esan dozu daola?

- Sozidadian, ba geure [...].

- Ta lehengunian hamen baserrixan inguruan hor esan ziñuan izen batzuk...

- A! Etxetik beherakuak?

- Bai, beherakuak edo gora edo...

- Etxeko terrenotan daren izenak? Hemen honek die [Karakolak], hau lehengo [...] honek. Hori Bidebittartia esaten jau.

- Bidebittartia...

- Hori esaten jau Sagastipia, hori etxeosteko sorua da. Gero hori esaten jau, hori... dana [...], bertan etorritako arbola txastar batzuk eta... horrek goititik behera Sagastipetik behera, ba, [zumia] egon zan hor epoka baten. Hori Beheko zelaixa. Guk ez dou ezautu zelai, baiña izena...

- Izenak esaiozu! [...] izenak esanda.

- Gero hemen dao... lehen be esan dot eta [...], hauxe pusketia da, oin piñua [...]...

- Baiña hori nun dao hor behian edo...

- Zapatarikua dauka honek izena. Hemen etxia neuk emon dot erre kara hemendik, Zapatariko bidia izen zan.

- Hor behian...

- Errekian onduan! Errekatik [...]. Hau errekia... Hemen zela igarriko jatzu, ba? Horrek dauka izena... Horrek gure terrenuan barruan daren izenak dia horrek. Ta beste aldetik, ba, Ziarretakua ta Maaspikua ta horrek danak dare illaran. Larrañagatzikikua ta... berak konfinatzen dittuen terrenuak konfinatzen dittuanak. Ta behian, ba, limitia, topia, ba, hau goititik behera etortzen dan [...], ba, pixkat. Oin, tope hori, ba, hori da errekia, behera estutu eitten da ta.

- Bai, bai.

- Honek be badauke izena. Honek be, hau Gaztaiñazarreta, gaztaiñaixa izandakua dalako, [...]. Gero horri Txarakua esaten jau, ta gero horri Aldaizarra. Ta horren goitti Anpolaialdia.

- Anpolaialdia hortik zihar dao, ez?

- Bidian aurrera junda.

- Zabaletako bidian?

- Zabaleta aldian, bai.

- Anpolegi.

- Bakutxak bere izenak. Gero, hau zelai haundi hau Albitza esaten jako. Hau danau zelai dao oin be. Albitza. Izena, e, beorrana. Hemen... honena be ez dot kontau. Hamen be [...] bat Erreturia, [...] etara ta [...] ein, ta, ba, hauraxe izena. Erreturia. Horrek... terrenuak dauzken izenak, lehenguak. Hori esaiozu oin ta iñok ez dau antzik emoten iñok be. Horrek dia izenak. Mendixan daren izenak, puntutan dakan izenak, jakin nik badakit hemenguek.

- [...] etxe-ondoko etxe-bueltako izenik [...].

- Honek be, honek be bere izena dauka, Beheko basua da hau.

- Bai! Danak esaten hasi ezker o...

- Ba, hoixe izena, izena, esan! Ba, izena, ezebez besteik, Beheko basua.

- Ta hori hau?

- Bai. Hori zatiori. Hamen cincuenta y cuatroko [...] ein barik, ikusten dozu? Hamen dana [...]. Ikusten dozu hamen zela dauan? [...] Aber cincuenta y tresa nun pasau zan, honek zenbat aurretik daren eindda. Hor ez dao hor gezurrik.

- Eta gero Azpilleta... Azpilleta inguruan, lehengunian amak esan zotan, ba, hori, bidetik... zela esan zotan? Azpilletako estratatik han onduan dauan zelaixa, harek be izena zeukala. Zela zan?

- Bai, oin harek repartidu ein dabe [harek einddako]... kalia daona, Isabelek edo...

- Zelaixa behekuaittik esango jok Mualdekua...

- Hori...

- [...]

- Mualdeko zeraaittik esango jok honek.

- Behian ez dauka, baiña [...].

- Bai, [...].

- Bai, baiña Azpilletan behian [ez dauka zela]. [Muak] daon lekua Itturraldia esaten jaue bat Azpilletan; gero Ziarreria geiñekaldia; hau gure aldera hortxe daukena, horri Etxeaurria esaten jaue. [...] gurian kontrari badauke horrek hor kuadro bat. Ta hau [Eizmendikua] da hori. Ta horri esaten jaue, ba, [Lubarrikua], noibaitten labranta ibilita haxe izena. Horrek gaurkuak ez dakixe iñok be! Hori asuntoori zela jakingo dabe, ba? Hemen bertan jaio ez danak ez daki hori. Ezta andriak be! Honek ez dabe... ez daki. Hemen bertakua bihar da hori jakitzeko.

3. Kokote auzoa eta Aranerreka

- **Erref:** BER-251/004
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:15:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Gaur egun dena Aranerreka auzoa da, baina lehen Kokote auzoa eta Aranerreka bereizten ziren. Bakoitzean ze baserri sartzen zen. Elizbideak.

Transkripzioa

- Auzua dana zela da?

- Auzua? Auzua sei etxe die. Hau diferentia da. Bueno, Aranerrekia dauka honek oin izena, baiña hau ez da Aranerrekia, hau da Kokote auzo. Ta Kokote auzo formatzen da lau etxe hemen garenak eta bi Zabaletak; [...]. Hori kantuan Amerikan kantatzen zebe ederki hemendik jundakuak, basarritik-eta jundakuak. Ba, honek izena hori: Kokote auzua. Zeiñek daki, ba? Aiuntamentuan be ez dakixe ta iñun be ez dakixe.

- Zabaletak bi esan dozu daoze?

- Bai, bi Zabaleta: San Martiñena ta bestekua. Ta Abrain. Ta guk ez dou ezautu...

- Abrain, baiña apurtuta dao haura.

- Ez dot nik hori esan! Beste etxe bat be bazeuan hor.

- Ze zeuan, ba?

- Zabalotei. Zabalotei, ez dao Bergaran bakarrik, Zabalotei etxia. Batzuk hangua zala San Martin esaten zebe.

- Bai, Zabalotei?! Zabaletakua! Ze Zabalotei? Ze esaten zabiz zu?

- Hagaittik ez dakizu zuk hemengo terrenuen berri! Zabalotei besteko saillian dao, bai, barrenian!

- [...].

- Ez dakizu! Ez dakizula!

- Bueno, ba...

- [Zuuk ez dakizu hori].

- Baiña nik entzunda! Hantxe Zabaletan gaiñekaldian dao [gurutzia] hantxe

daola. [...] ta ni handik ez naiz pasau be ein...

- Haura ez da basarrixa, haura San Martiñena. Hau basarrixa da nik esaten dotena, e! [...].

- Oseake basarrixa, baiña hangua esan dozu San Martin dala, baiña ez da hangua, Zabaletakua da San Martin.

- Igual jako!

- Zabaleta txikikua edo ez zan...?

- Bai, Zabaleta txikikua.

- Baiña Zabaleta txiki ya ez dao, ez?

- E?

- Zabaleta txiki. Edo ez da egon edo...

- [...].

- Bat terreno [...]. Entendidu dozu? Bat terreno ontxuaokua, Zabaleta txikixa, txikixa ez da haura be. Han behian dare. Bat terreno ontxuaokua... [...].

- Orduan, Kokote auzo da: Santa Luzia, Azpilleta...

- Angua...

- A! Angua be bai? Eta Zabaletak?

- Itxasmendi eta horrek ez die, e! Itxasmendi hori Anarrekoa da, lehengo Anarrekoa. Oin danak dare Aranerrekan.

- Ya, ya...

- Anguatik hasten da Kokote auzua.

- Ta Abraiñen akabau. Elizbidia guk... ni ez naiz akordatzen, baiña San Blasera jutun zan hemendik bidia. Ez zeuan kalera bideik. Elizbidia hemenditxik dao San Blasera ta hortik zihar juaten zan gero Santamañara. Santamañakuak [giñan].

- Ta elizbidia edo hori nundik zauan?

- Ba, hamenditxik, hortxe Anpolaialdetik behera. Hortitxik erredera ta errekatik San Blasera ta San Blasetik gero Santamañara.

- Ta hori zu akordatzen zara? Akordatzen zara zu horrekin?

- Zela akordauko naiz, ba!

- Ba, horixe...

- Zela akordauko naiz, ba!

- Oingo... oingua hau da elizbidia.

- Baiña bide horrek bai [...] elizbidia... Abrainguak be hemenditik etortzen zian elizbidetik Santamañara. Hau bidiau ein zanian [...] honek ez zaukan bideik, ez zaukan bideik. Eta bidia Muañekuei terrenua emon ta Maaspikuei ta eindda dao hori. Hor dare terreno pusketak, eskitturiak markatzen dittu danak.

4. Aranerreka auzoko toponimia

- **Erref:** BER-251/005

- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:18:35

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aranerreka auzoko toponimia; Larrarte eta Azpilleta baserrien inguruko sailen izenak. Irukurutzeta edo Aizpurutxora nondik joaten ziren.

Transkripzioa

- Ba, ez dakit...

- Ta hamen etxe inguruko zerak ein ezkerre, ba, nik uste dot hola izengo

dala hori. Etxe inguruko izenak...

- Egon, [...].

- Ez, honek etxe ingurukuok eta ya esan dittuzu.

- Honi etxetik gorakua, ba, Etxaburuzarra esaten jako horri, etxian gaiñekaldeko honi, aldapazar honi.

- Zela?

- Etxaburuzarra.

- Etxaburuzarra?

- Bai.

- [...tik] gorakua, [...] bittartian daona, ta gero hor aurreratxua daona, berriz, Anpolaialdia lehen esan dounetik gora daona, ba, hori [...] Txaria. Gero, lehen esan dot, Albitza bestia... ta horrek, horrek hartzen dia bueltia. Eren izena horretxek dia. Gero etxetik atzerako aldapa hori [Itturtzako] aldapia esaten jako horri be... Eren izenak horrek [...]. Horrek guk ipinittakuak ez dia horrek, horrek berez datozenak die!

- Eta Etxazpixa esan dozu, Etxazpixa?

- Etxazpixa da... Etxazpiko soroaundixa. Soroaundixa, ez dauka harek beste izenik. Soroaundixa [...]. Hauxe da.

- Ta Bidebittartiak...

- Bidebittartiak. Ez, harek Bidebittartiak Karakolak harek. Horrek [...].

- Etxostia apuntau dozu?

- Grabauta geratzen da. Ez daukat denporarik bestela...

- Baiña nik hemendik ezebez, [...], honek bai, honek bai. Hamen be oinguak ezin leike... ez zekixen orduan terreno hontan ze zeuan, ta nik badakit orduan ze zeuan terreno hontan. Nik ezautu [...], piñuak gure denporan sartutakuak dia ta. [...] kuadro hori. Guria ez da ikusten, hementxe dao.

- Hor beste...

- Bai, [...] daona. Hau da Irutxaboletarako bidia, baiña Irutxaboleta ez da ikusten, hutsaaittik, baiña...

- Ta hau da bidia?

- Bai, hauxe, hauxe. Eta Azpilletatik jentia lehen Elusura zoiana Azpilletatik, ba, honi laga, hona tontorrera etortzen zien lehenengo ta gero hori [...] zeuben ta hona; hortik zihar Elusura, Aizpurutxora ta... Horra gorako biderik besterik ez zeuan Irukurutzetara, ta hoixe zan bide prinzipala. Oseake, hemen behetik guretik iñora ez zan jutten, danak hortik jutten zien. Horra gueneraiño ixo Azpilletatik ta handik Irutxaboletara, Irutxaboletatik ya gorako martxia. Horixe zan, lehengo bidia horixe zan. Ez zeuan beste biderik. Lehen ez zeuan pistarik eta...

5. Aranerreka auzoko toponimia

• **Erref:** BER-251/008

• **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:25:00

Gaia(k):

• Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aranerreka auzoko toponimia; Angua baserriaren inguruko toponimoak.

Transkripzioa

- Eta hemendik basarrittik Azpilletara hor... eskuma aldiñ dauzkazu... bueno, behian ortua-ta darez, ez?

- Bai, Etxeostian.

- Etxeostian. Eta gorao?

- Gorao, ba, alanbrian pareraiño. Ta gero alanbretik gora sasi-sastraka hori be bai. Horraiño, sastraka barreneraiño. Hor bide ertzian. Hor sastrakia, urritza ta egoten da hor [...]. Gero han bueltia hartzen dau horrek. Hor Santa Lutzikua da hor berriz gaiñian, [...] bixak batera dare terrenuak. Ez dakixenak ezin leizke [...]. Hor Santa Lutzikua dao sailla horraiño, Zabaletako aldaparaiño. Gero ya etxealdia, ba, jan bihar ez dabena erak itxitta dao hori; [...].

- Ta gero... bueno, hamendik Itxasmenditik... bueno, ez, Itxasmendi ez... Angua ingurukuak edo?

- Saillak?

- Edo ez dakit... saillak edo hola izenak edo...

- Izenak batzuk bai. Soldaukua [...] bat. Soldaukua esaten jako, Anguako etxe azpizan dao. Soldauko tontorra badakizue, gaiñera, nun daon.

- Soldauko tontorra? Nun dao hori?

- Ba, Anguako etxia baiño zeoze honutzatxuao, estaziñuan parian, lehengo estaziñuan, goiko estaziñuan parian tontor-unatxo bat.

- Bai. Hori?

- Horixe da Soldauko tontorra esaten jakona. Ta gero hegixan Taketana. Taketa...

- Eta [Taketana] be ze da, terrenua?

- Bai, terrenua.

- Eta hori nun dao?

- Etxetik bertan Anguan. Ganauak dauzken [...] azpikaldeko hegi-unatxua, hauraxe da Taketan zelaixa. Ta handik eruaten zeban bizkarka gizon horrek. Ta eitten zittuan [...], ba, lerakadian tamaiñokuek. Ta indarra [...] eukiko zaben, ba, iñok kalkulau ezinbeste. Eteraixu kontuak, [...] sei arruakuak] laugarren pisora jasotzen dittuan gizona zelakua izango zan! Ta hirurogei kilo zauzkan, e!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com